

ONGIETORRI IKASTOLARA



elgoibar ikastola



P. M. Urruzuno Kooperatiba

www.elgoibarikastola.net 943 744441 elgoibareikastola.net

aurre-matrikulazioa
urtarrilaren 28tik
otsailaren 8ra



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak



**Ainhoa
Lendinez**

Lance Edward Armstrong 1971n jaio zen, Texasen (AEB). 12 urterekin hasi zen igerian. Ondoren triatloira jauzi egin, eta berehala nabarmendu zen. Triatleta profesional bihurtu eta hainbat lasterketa irabazi zituen errepide-txirrindularitzan. 25 urterekin minbizia atzeman zioten barrabletan, eta metastasia zuen garun-biriketan. 2 urte

geroago itzuli zen errepidera, eta 1999an lortu zuen lehen Tourra. Hortik aurrera, denok dakigu zenbat aldiz jantzi den horiz estatubatuarra. Dopinaren mamuak beti zaindu du gertutik txirrindularia. Gainerako guztiak baino gertuagotik, zalantzarik gabe.

“Sinetsita nago Armstrong, hein batean, sistemaren biktima ere badela”

Zergatik? Onetan onena delako. Ez naiz ni kirol “zikinduaren” alde hasiko hemen, ez noa neure buruari harrika egitera. Baina Armstrongek irabazi dituen zazpi Tourretan, bigarren eta hirugarren egin zutenak ez al ziren dopatuko? Indurain bera, beste garai batekoa izanagatik, garbi al dago? Dopinak ezin konta ahala izen ditu txirrindularitzan, baina baita beste kiroltan ere. Zer eta noren interesak daude honen atzean? Ikusleok ikuskizuna nahi dugu, ehunka kilometro eta hamaika mendate gogor. Telebista, babesleak... ez ote da azpiegitura handi horren emaitza hau guztia? Azken muturrean txirrindularia dago, pedalei eragiten, mila begi adi-adi dituela. Irabaziz gero zerura, pott eginez gero, ahazturara. Zikloturistetan, triatloietan, herri lasterketetan... gero eta sarriago entzuten dut dopin hitza, eta ikaratu egiten nau. Ni ez nator amerikarra defenditzera, baina sinetsita nago hein batean sistemaren biktima ere badela, eta dopina gorabehera, bere kirol dohainak ezin direla zalantzan jarri. Armstrongek berak esan zuen: amore emateak sortzen duen mina betiko da. Zergatik orduan orain aitortu? Honaino iritsita... Iñi, ni platano bat bizkarrean hartuta ateratzen naiz bizikletan, eta zu?



**Iñigo
Lariz**

Bizikletan hasiberria nintzen txirrindularitzari buruzko aldizkari batean Lancen minbiziari buruzko berria irakurri nuenean. Tipo honek denon animoen beharra izango zuela pentsatuta, eskutitz bat idatzi nion gaitz mardarikatu horren aurka barruan zuen indar guztiaz borrokatu zezan. Handik denboraldi batera gutun bat iritsi zen gure etxera. Texasetik zetorren. Barruan, animoengatik esker ona emanaz ingeleses idatzitako gutuna aurkitu nuen. Orduetik mirespen berezia diot. Bizikleta gainean urteetan zehar erakutsi duena ez da gutxi izan, eta gainera, asko egin du minbiziaren aurka. Gaitz horrek jota egon diren askorentzat erreferente eta aurrera jarraitzeko oinarri izan da eta.

“Haren lan, gainditze eta borroka baloreekin gelditu nahiko nuke nik”

Baina amerikarrak erabili omen dituen metodoak ezin ditut defendatu nik ere. Kirolaren baloreen aurka doaz, bakoitzak duen onena atera eta aurrez aurre eta zintzotasunez lehiatzearen aurka. Ongi diozun moduan, Tour horietako podiumeko beste mailak garbiak izan al dira, ordea? Bat gatoz sistemaren biktima izan dela pentsatzean. *Puerto operazioa* argi uzten ari da goi mailako kirol askotan dopina ohiko praktika izan dela. Egindakoagatik zigorra bete beharko du dena den, baina gehiegizkoa deritzot irabazitako tourrak kentzeari. Ez dakit zergatik eman duen amore orain. Doping kontuekin kirol munduari kendu dionarekin baino gehiago erakutsi dituen lan, gainditze eta borroka-baloreekin gelditu nahiko nuke nik.

II. URTEURRENA

FERNANDO AZPIAZU URIBETXEBERRIA

2011ko urtarrilaren 30ean hil zen.

*“Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen goxoa ezerk ez du lausotuko.”*



Senideak

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA
ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA
Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel
Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel
Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta,
Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi
Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari
Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,
Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo
Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-
1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Elgoibarko Odol Emaileen Elkartetik eskerrik ematen dizkizuegu laguntzaile guztiei, zuen laguntzari esker posible delako gure eginkizuna betetzea. Eginkizun humanitario eta beharrezkoa. Aipamen berezia egin nahi diegu odol emaille guztiei, bazkide laguntzaileei, Udalari, Correos-eko langileei, Ibar Txiki arandegiari, Julio Buenori, Eroskiri, Altolako Urak enpresari, Txankakuari eta herriko prentsari.

2012an 625 odol poltsa eraman ditu Elgoibarko delegazioak Donostiako odol bankura. Eskerrik asko.

Honen bidez, gazteei, bereziki, egiten diegu deia, odola ematera etor daitezen.

Elgoibarko Odol Emaileen Elkartea ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzue:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Herriko hainbat gunetan ur putzu handiak sortzen dira: "Euri asko egin du azken asteotan, eta horren ondorioz, ur putzu handiak sortu dira herriko hainbat gunetan. Sallobente auzoko Ibartxiki baserri inguruan putzu handiak zeuden joan zen astean. Inguru horretan jende asko ibiltzen da paseatzen, eta ur putzu horien ondorioz pasatu ezinda ibili ziren lehengo astean. Era berean, musika eskola aldameneko haur parkean eta Urazandiko haur eskola atarian ere izugarrizko putzuak zeuden. Arazo hori konpontzeko zerbait egin beharko litzateke".



Mila esker Santa Klara auzora doan lurrazpiko pasabidea txukuntzeagatik: "Santa Klara auzora doan lurrazpiko pasabidea garbitu egin du Udalak, eta argi berriak jarri ditu. Oso ondo geratu da, eta eskerrak eman nahi dizkiogu".



Kilimoi erreka inguruan dagoen pasealekua urak hartzen du euria egiten duenean: "Paseatzeko leku oso polita daukagu Mendaron, Kilimoi erreka inguruan, baina euri asko egiten duenean urak hartzen du pasealeku hori. Hainbat hustubidek zuzenean pasealekura bideratzen dute ura, eta hori aldatu egin beharko litzatekeela iruditzen zaigu".



Osasun Zentro aurreko zebra bidea primeran geratu da: "Txalo bero bat eman nahi diot Udalari, Osasun Zentro aurrean oinezkoentzako zebra bidea jarri duelako. Primeran geratu da! Jende gehienak errotonda erditik gurutzatzen zuen lehen, eta arriskutsua zen. Orain oso ondo geratu da ingurune hori".



Txalo bero bat Mintxeta atletismo taldekoei, Mugertza krosa antolatzen egin duten lanagatik: "Beste behin ere primeran irten zen Mugertza krosa. Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, herritarrek ez zuten hutsik egin, eta sekulako giroa izan genuen Mintxetan. Lan ona egiten dute antolatzaileek urtero, eta aurtan ere halaxe izan da. Nazioarteko korrikalaririk onenetarikoak izan ditugu Elgoibarren, eta horrek erakusten du antolatzaileek egiten duten lana. Segi horrela!".



Txalo bero bat Debemen elkarteari: "Eskerrik asko Debemen elkarteari, urtarilean zehar Sallobente auzoan egin dituzten lanengatik. Bidea eta bide bazterrek garbitu dituzte, eta hori eskertzekoa da".



Ettxeko konpostajearen gaineko hitzaldia antolatu dute Elgoibarko Udalak eta mankomunitateak hilaren 6rako

Elgoibarko Musika Eskolan izango da, 19:00etatik aurrera

Debabarrenako Mankomunitateak etxeko konpostajea sustatzeko kanpaina hasi du, eta horren barruan, hitzaldi informatiboa antolatu du hilaren 6rako, Elgoibarko Udalarekin elkarlanean. Elgoibarko Musika Eskolan izango da hitzaldia, 19:00etatik aurrera, eta antolatzaileek aurreratu dute hitzaldi ostean etxean konpostajea egiteko behar den materiala doan banatuko dietela interesa agertzen duten guztiei.

Azaroaren 29an hasi zuten kanpaina mankomunitateak, eta helburua ere zehaztu zuten orduan Arcadio Benitez Debabarrenako Mankomunitateko presidentek. Guztira, 300 autokonpostadore jarri nahi dituzte Debabarrena inguruko 1.500 baserri eta familia bakarreko etxebizitzetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako kanpaina da, eta hala, izena ematen duten bizilagun guztiek konposta



egiteko behar den guztia doan jasoko dute: konpostagailua, aireztagailua, eta konpostajeari buruzko gida-liburua. Era berean, konpostajearen aditu diren teknikarien laguntza eta aholkularitza ere izango dute kanpainen parte hartzen dutenek. Unean-unean sortzen zaizkien zalantzak

argitzeko telefono zenbaki bat ere izango dute: 902 102 885

Kanpaina honetan izena eman nahi duten herritarrek www.debabarrenakonpostatzen.com helbidean edota 943 700 799 telefono zenbakian jaso dezakete informazio gehiago.

Manuel Salegi eta Pedro Garatek irabazi dute Euskal Herriko Mus Txapelketako Elgoibarko kanporaketa



Elgoibarko kanporaketako finala jokatu zuten lau mustariak. Erdian, irabazleak

Zapatuan jokatu zuten Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa Elgoibarren, eta beste behin ere Manuel Salegi eta Pedro Garatek irabazi zuten, duela bi urteko txapel-dunek. Elgoibarko kanporaketa irabazita, Gipuzkoako sailkatu dira. Otsailaren 23an jokatu dute kanporaketa hori, Seguran, eta Euskal Herriko final handia, Agurainen jokatu da, martxoaren 9an.

Lanbroa tabernan jokatu zuten Elgoibarko kanporaketa zapatuan, eta guztira zortzi bikotek parte hartu zuten. Salegi eta Garate eskarmentu handiko gizonak dira. Duela bi urte zazpigarren egin zuten Euskal Herriko Txapelketan, eta iaz ere finalerako sailkatu ziren Elgoibarko kanporaketan. Finalean galdu egin zuten, Jose Mari Zialtzeta eta Diego Marinen kontra.

Izena **Iñigo Palomino**



Euskotreneko zuzendari nagusi izendatu dute Iñigo Palomino elgoibartarra. Bigarren aldia da kargu hori hartzen duela. Aurrez ere, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren azken aroan, bete zuen ardura hori, 2007ko irailetik 2009ko ekainera bitartean. Orain, baina, aurreko agintaldi hartan baino ardu handiagoa izango du. Izan ere, Iñigo Urkullu lehendakaria buru duen Jauritzak Euskotreneko kontseilari delegatu kargua kendu du, administrazio gastuak murrizteko. Orain arte zuzendari nagusiaren gainetik zegoen kontseilari delegatua. Palominok 39 urte ditu, eta Enpresa Ikasketak ditu.

Mobilizazioak **Gipuzkoako metalgintza**

Mobilizazio kanpaina hasi dute Gipuzkoako metalgintzako LABeko delegatuek. Urta-rrilaren 24an batzarra egin zuten, eta plangintza bat adostu zuten hurrengo egunetarako. Aste honetan eskualdeko poligono eta zubiak pankartzaz josi dituzte, eta hilaren 7an kotxe karabana egingo dute Debarrenean zehar, Itziarko Correa Anayak enpresan hasita (8:30). Hilaren 8an, elkarretaratzea egingo dute Confebasken Bilboko egoitza aurrean, eta 18an, Industrias Mail enpresa aurrean batuko dira, 11:00etan. Hilaren 27an, berriz, batzarrak egingo dute Eibarren, 10:00etan, eta 12:00etan elkarretaratzea egingo dute Jazz Zubiaurre lantoki aurrean.

Irudia **Luizia**



Joan zen igandera arte itxita egongo zela esan bazuten ere, azkenean gaur zortzi, hilaren 25ean, zabaldu zuten luiziaren ondorioz itxita izan zuten 634 errepide zatia. Errail bakarra zabaldu zuten, eta langileek lanean jarraitzen dute. Mendi ezponda hori sendotzeko lanek luze jo dezaketela iragarri dute Gipuzkoako Foru Aldunditik, eta otsailaren 15era arte gutxienez ezingo dutela itxita duten erreila zabaldu esan dute.

Kandelaria eta San Blas eguneko elizkizunak

Otsailaren 2an da Kandelaria Eguna, eta Elgoibarren hiru elizkizun berezi izango dira. 9:00etako mezan, kandelen bedeinkazioa eta prozesioa egingo dituzte Santa Klaran. San Bartolome parrokian 10:00etan egingo dute kandelen bedeinkazioa eta San Klarako komentuan, bezpera bereziak kantatu dituzte 17:30eko mezan, Konsekartuen Eguna dela-eta. San Blas egunez, hilaren 3an, san blas opilak bedeinkatuko dituzte meztan. 8:30ean izango da meza Maailan, 10:00etan Santa Klaran eta 11:30ean San Bartolome parrokian. Azken horretan 2012an jaiotako haurren aurkezpena eta bedeinkazioa ere egingo dute.

Lourdesera irteera antolatu dute otsailaren 11rako

Lourdesko ama birjinaren eguna ospatzen dute otsailaren 11n, eta Elgoibartik irteera antolatu dute Lourdesera bertara. Autobusa 6:15ean irtengo da Sigmako zubitik. Bidaiak, bazkaria barne, 40 euro balio ditu, eta interesatuek honako telefono zenbakian eman dezakete izena: 943 740 822.

Txankakuaren Gabonetako zozketan banatu gabeko sariak

Txankakuako Gabonetako zozketako lau zenbaki sarituren jabeak ez dira agertu. Hauexek dira zenbakiak: 73.243 (ordezkoa: 05.194), 68.528 (64.315), 02.785 (46.686) eta 36.290 (98.778).

Karta joko txapelketa antolatu dute Mendaron gaurko

Mendaroko Lagun Betikoak jubilatuen elkarteak karta joko txapelketa antolatu du gaurko. 16:00etan hasiko da txapelketa eta aurrez izena emandako bikoteek parte hartu ahal izango dute. Ordurako agertzeko eskatu dute antolatzaileek.

GEMMA MONREAL

MARGOLARIA

“Margotzea
magia da
niretzat”

Joan zen barixakuan zabaldu zuen Gemma Monrealek atzera begirako erakusketa, eta otsailaren 17ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Margotzen hasi zenetik gaur egunera arteko margoak bildu ditu Monrealek, 60 bat artelanguztira. Era guztietako lanak: koadroak, marrazkiak, eskolan eginiko eskulanak eta beste hainbat bitxikeri ere bai. Margolari elgoibartarrak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu erakusketara, baina bereziki, etxeko txikienei egin die deia. Margotzea jolas ederra iruditzen zaio Monreali, eta mezu hori zabaldu nahi die gaztetxoei. Konstantzia apur batekin ametsak egi bilakatzaren direla azaldu du, eta margolari izatea konstantziak eman dion saria dela esan du.



Atzera begira jarri zara erakusketa honetan. Zer ikusiko dugu?

Nire lehenengo marrazkietatik gaur egunera artekoak erakutsiko ditut. Amaren aldeko aitona, Claudio Monrealek, eta nire aitaren aldeko amonak, Dioni Sanchezek, nire umetako marrazki guztiak zituzten gordeta. Beti margotzen egoten nintzen umetan, eta marrazki pila bat daukat. 8 urterekin egin nuen nire lehenengo koadroa! Horrez gain, eskolan egindako eskulanak eta zirriborroak ere jarriko ditut ikusgai, eta erreplikaturatu daukadan koadro bakarra ere bai. Hasieratik gaur arteko eboluzio guztia ikusi ahal izango dute erakusketara etortzen direnek. Saritutako koadro batzuk ere egongo dira, eta bilduma pribatuetako koadroak ere bai. Orain arte egindako erakusketekin ez dauka zerikusirik; oso berezia da.

Nola bururatu zitzaizun horrelako erakusketa bat antolatzea?

Elgoibartarra naiz, eta nire lan guztiak elgoibartarrei erakusteak poz handia ematen zidan. Bi urte eman ditut erakusketa prestatzen eta ilusio handia jarri dut. Margolari gehienek izaten duten bezala, nik ere etapa beltz bat eduki nuen, eta garai hartako koadroak ez ditut jarri, ez dudalako nahi etapa hura gogoratzea.

Ikusleen begiek erraz bereiztuko dituzte zure ibilbideko etapak?

Bai, seguru baietz. Kolore aldaketak nabarmentzen dira. Hasieran berdea asko erabiltzen nuen, gerora elurraren gaia agertzen hasten da eta hirugarren etapa batean urre koloreak nagusituko dira. Egungo etapan ere urre kolorea erabiltzen dut gehien, eta berdea ere berriro agertu da.

“Bizirik sentitzeko margotu egin behar dut”

Erreplikaturatu koadro bat erakutsiko duzula esan duzu, baina artistek ez dituzte koadroak erreplikatzeko, ezta?

Ez. Izen handiko artista errespetatua izate-

ko, koadroak ez dira erreplikatu behar. Bezeroek eskusibitate osoa nahi izaten dute, eta horregatik egiten dira koadroak behin bakarrik. Luzianorengana joaten nintzen margotzen ikastera, eta koadro bat erreplikaturazi zidan, espatula erabiltzen ikasteko. Pintzelekin margotutako koadro bat hartu genuen, eta diferentzia ikusteko espatularekin marraztu nuen paisaje berbera. Bi lanak daude ikusgai, eta diferentzia nabarmena da. Luzianok espatula erabiltzen irakatsi zidanetik, ez dut beste teknikarik erabili.

Nola ikasi zenuen margotzen?

Ume-umetatik gustatu izan zait marraztea, eta arkatza eta koadernoak beti izaten nituen eskura. 11 urterekin Luzianoren estudioa joaten hasi nintzen. Udararen eta asteburuetan joaten nintzen. Oinarritzkoena irakatsi zidan berak, baina gero nire kabuz ikasi dut gehiena. Luzianok uste zuen berehala aspertuko nintzela margoarekin, umetako kapritxo bat besterik ez zela niretzat, baina laster konturatu zen benetan maite nuela margotzea. Arte Ederrak ikastea nahi nuen, baina gurasoek uste zuten gosez hilko nintzela, eta administraritzak ikastera bidali ninduten, garai hartako neska gehienak bezala. Piper asko egiten nituen marraztera joateko! Nire ametsa beti izan da marraztea. Asteburuetako paga Jauregi inprentan gas-tatzen nuen beti, arkatzak, borragomak, margoak edo koadernoak erosten. Inprenta hura liluragarria zen niretzat!

Noiz hasi zinen erakusketak egiten?

Lehenengo erakusketa 18 urterekin egin nuen, Granadan. Ikara ematen zidan nire lanak Elgoibarren erakusteak! Granadan izan nuen arrakasta ikusita, berehala egin nuen erakusketa Elgoibarren, Kutzaren lokalean. Izugarria izan zen, sinestezina! Jendeak koadroak erosi zizkidan! Orduetik 50 bat erakusketa egingo nituen.

Zer esan zuten etxekoek margolari profesionala izan nahi zenuela erabaki zenuen?

Nire senarrari eman behar dizkiot eskerrak, bereziki, beti babestu nauelako. Nik gauzez margotzen nuen, egunez lan egiten nuela-ko, baina lanik gabe geratu nintzenean senarrak esan zidan margoari eskaintzeko nire ordu guztiak. Hartu dudana erabakirik onena izan da, eta ez naiz damutzen. 24 bat urte izango nituen.

Noiz eta nola inspiratzen zara?

Edozein unetan etortzen zait inspirazioa, eta une horretan burura etorri zaidana momentuan irudikatu behar dut paperean. Eta une horretan ez badaukat paperik eskura, beste edozein euskarri erabiltzen dut. Behin, jatetxe batean nengoan Sorian eta mantedean marraztu nuen. Jatetxe jabe-ari barkamena eskatu nion, eta horren hari-ara, Sorian erakusketa bat egiteko aukera izan nuen. Praketan ere marraztu izan dut! Leitzarango paisaje bat oraindik praka bako batzuetan daukat marraztuta. Gauren batean esnatu izan naiz ametsetan ikusi dudana irudi bat marraztera ere! Txakurrarekin behin baino gehiagotan jaitsi izan naiz estudioa goizeko 2:00etan! Inspirazio momentuak ezin dira pasatzen laga. Etxean baino denbora gehiago pasatzen dut estudioan.

“Senarrari eman behar dizkiot eskerrak, beti babestu nauelako”

Zeri margotzen diozu?

Basoak eta paisajeak asko gustatzen zaizkit. Nire buruan irudikatzen ditut gehienak. Herri txiki-txiki txoko bakartiak eta etxe ahaztuak izugarri gustatzen zaizkit. Hango bizilagunen sentimenduak imajinatzen saiatzen naiz: tristura, poza, maitasuna, bakardadea... Margotzea magia da niretzat, eta bizirik sentitzeko margotu egin behar dut. Etxeko txikienei esan nahi nieke marraztea zoragarria dela. Koaderno eta arkatz batekin joku magikoak irteten dira, eta konstantzia apur batekin ametsak egi bihurtzen dira.

Azken erakusketa izango al da?

Atzera begirako azkena izango da seguru-ri! Osasunak laguntzen badit 80 urterekin egingo dut beste bat agian, baina ez dakit ordurako nola egongo naizen. Bitartean bestelako erakusketak egingo ditut.

MIKEL IKATZATEGI

Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kidea

‘Hondakinek badute irtenbidea: zero zabor’ hitzaldia antolatu du herritar talde batek datorren eguenerako. Zabor eta hondakinei buruzko informazioa emateaz gain, entzuleen kezkak argituko dituzte Gipuzkoa Zero Zabor taldeko Mikel Ikatzegik eta Joxe Mari Irazustak. Hitzaldia 19:00etan hasiko da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



“Hondakinik onena sortzen ez dena da”

‘Hondakinek badute irtenbidea’ izena jarri diozue hitzaldiari. Zein da irtenbide hori?

Irtenbideaz hitz egin aurretik, arazoa azaldu behar dugu: Gaur egun hondakin asko sortzen ditugu, eta gainera, gehienak (%70) batera biltzen ditugu, nahastuta, eta alferrik galtzen dira. Eredua lineal batean kudeatzen dira materialak, hau da, produktuak egiteko natura ustiatzen dugu, gero produktuak kontsumitu eta bota egiten ditugu. Natura gero eta ustiatuago dago, eta gero eta zabor gehiago sortzen dugu. Eredua lineal hori aldatzea izango litzateke irtenbidea, zero zabor ereduaren erabiliz.

Zertan datza zero zabor ereduak?

Eredua lineal hori zirkular bilakatzean datza, hau da, sortzen ditugun hondakinetan dauden materialak berreskuratzea eta produktu berriak egitea. Era berean, zero zabor ereduaren garrantzia handia dauka zirkulu hori txikitzeak, ahalik eta produktu gutxien kontsumitzeak, materialen efizientzia hobetuz eta behar ez ditugunak ez erabiliz. Zero zabor ereduak derrigor behar du etengabeko ikerketa eta hobekuntza.

Nola gauzatu daiteke zero zabor ereduak?

Neurri, programa eta epe zehaztetan gauzatu behar da, hiru mailatan: lehenengoan murrizketa izango litzateke, hondakinik onena

sortzen ez dena delako; bigarrena birziklapena, hondakinek ez dutelako zertan zabor izan, eta hirugarren mailan ikerketa eta garapena egondo lirateke, gaur posible ez dena bihar izan dadin.

Zertan bereizten dira hondakinak eta zaborrak?

Egunero erabiltzen ditugun produktuek duten erabilgarritasuna galtzen dutenean sortzen da hondakina. Material garbia da, eta berrerabili egin daiteke. Hondakin horiek nahasten direnean sortzen den masa zikina da zaborra.

Zero zabor bidean zein da emaitza onenak ematen dituen sistema?

Ekiteko mailen arabera, mekanismo desberdinak aplikatu daitezke. Gipuzkoan udalek eta mankomunitateek daukaten eskumena dago eztabaidan; hau da, bilketaren gaia. Lortu behar dena da gaur egun dugun errealtatera gehien hurbiltzen den sistema erabiltzea. Gaur egun sortzen ditugun hondakinik %90 birziklagarriak dira; portzentaje horretara iristea ahalbidetuko duen sistema ezartzen asmatu behar dugu. Une honetan bi sistema daude eztabaidan: atez atekoa eta bosgarren edukiontzia, eta emaitzek berez hitz egiten dute. Elgoibarko Udalak emandako datuen arabe-

ra, bosgarren edukiontzia jarrita, %20 gaik biltzetik %30 biltzera pasa zarete Elgoibarren. Usurbilen adibidez, atez atekoa jartzean %28tik %82ra pasa ziren. Bosgarren edukiontzia arekin hondakinik bi heren zabor bihurtzen dira.

Zaborren kontu honek kutsu politikoa hartu duela esan daiteke?

Penagarria da gaiari ematen ari zaion erabilera. Lasaitasunez eta objektibotasunez eztabaidatu beharko litzateen gaia da, herritar guztion osasunari eragiten diolako.

Erraustegiari buruz, zer daukazu esateko?

Konbentzitu gaude erraustegia ez dutela egingo. Ikerketek erakutsi dute erraustea kaltegarria dela inguruko bizilagunentzat, eta osasuna oinarritzko eskubidea da. Bestalde, hondakinak baliabideak dira, eta horiek xahutzea astakeria da, eta Europatik datorren legediaren arabera, 2020rako ezingo da material birziklagarria erraustu. Beraz, ez dauka zentzurik erraustegia egiteak. Gipuzkoan, gainera, inork ez du erraustegirik nahi. Herri desberdinetan egon da erraustegiaren proiektua, eta bai herritarrak eta baita alderdi guztietako politikariak ere kontra agertu dira. Alternatibak egonik, ez du merezi horretan tematzeak.

Erretratu zaharra



1943

Aste honetako erretratu zaharra Maria Luisa Gurrutxagak ekarri du BARREnera. Urkiri baserriko Gurrutxaga familia ageri da argazkian, gurasoak eta seme-alabak. Tartean Joxe Gurrutxaga agertzen da, Maria Luisa beraren osaba, alegia. Santa Ageda bezpera egunean 94 urte beteko ditu Joxek, eta zorionak emateko, ilobak ondorengo hitzak eskaini dizkio:

*Urkirin jaio eta Garagartzan bizi,
Joxe Gurrutxaga, osaba maitea
biak dira Sallobenteko baserri.
betidanik zaude pozez betea.*

*Urtiak aurrera doaz, ezpainetan irri,
Jarraitu ezazu horrela, gizon dotorea
gaurko egunean opa dizugu, zorionak zuri.
Santa Agedaren babesean, ospatuz 94. urtebetetzea*

Gogora ditzagun zein diren erretratuan azaltzen direnak: **goian** Esteban (†), Manuel (†) eta Txomin (†). **Bigarren ilaran** Miguel (†), Josefa (†), Joxe, Isabel (†), Maria (†), Melchor (†) eta Jose Manuel (†). **Behean** Higinia (†) Juan Jose (†) eta Tomasa (†) (gurasoak) eta Mari Tere.



**Debabarreneko enpresa txiki bat
ondorengo ezaugarriak dituen
persona baten bila ari da:**

- **Mekanizatuari buruzko ezagutza handia.**
- **Tailerra kudeatu eta antolatzeko gaitasunak izatea eta horretarako beharrezkoa den esperientzia erakustea beste leku batzuetan egindako lanarekin.**
- **Lideratzeko gaitasuna izatea eta agintzeko ezaugarriak propio izatea.**
- **Euskararen ezagutza baloratuko da.**

Berehala lanean hasteko aukera.

Soldata, bere jardueraren araberakoa izango da.

Interesatuak, bidali C.V.-a jausoro@imh.es helbide elektronikora

Jurdan Ezenarro irabazle, Mendaroko butano-desafioan

Sekulako ikusmina sortu zuen zapatuan Mendaron hiru lagunek jokatu zuten butano-desafioak. Hasi eta bat, Unai Salegi *Sarube* jarri zen aurrean, eta Santa Kurutz pare horretan harrapatu zuen Andoni Zuabiaurre *Gorixok*. Jurdanek, entrenamenduetan egindako denborak gogoan, bere pausoari eutsi zion, eta atzetik aurrera etorri zen. Eta asmatu zuen estrategian. Azkenean, bera nagusitu zen, 42:37ko denborarekin. Bi minutuko aldea atera zion Gorixori, bigarren sailkatuari (44:35). Sarubek Berasaluze baserritik Alkortarako bidegurutzerako azkeneko bide zatian laga zuen proba, gerialdean min hartuta. Minaren minez, kostata iritsi zen gora, oinez, apustu lagunek eta gertuko beste hainbatek lagunduta. Argazki gehiago eta bideoak: www.EgoiBARREN.net helbidean.



Jurdan Ezenarro, ibilbideko azken zatian, pendizik handienean.



Berasaluze inguruan hiru apustulariak, sokan.



Andoni Zubiaurre, hortzak estututa, Lizarpe gainean.



Jurdan Ezenarro, azkeneko ehun metroan.



Unai Salegi, eta atzetik, Andoni Zubiaurre, nor baino nor.



Jurdan Ezenarro bere ama Rosa Mari besotan duela.

Thiare familiak, esker onez

Hilabeteko semearen gorpua Senegalera eramateko jaso duten laguntza eskertu dute



Mamadou eta Amy senar-emazteak, Babacar, Sadio eta Fatiou seme-alabekin.

Esker oneko hitzak baino ez ditu Mamadou Thiarek. Kostata mintzo da gaztelaniaz, baina ondo daki jakin zer esan nahi duen. “Eskerrik asko lagundu diguten guzti-guztiei. Estimaten diegu gugatik egin duten guztia. Ikaragarria izan da”, dio behin eta berriro. Abenduan, hilabeteko umea hil zitzaizen Thiarerretarri bat-batean, eta haurren gorpua Senegalera eraman ahal izateko, diru bilketa kanpaina hasi zuen Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak, berria jakin eta berehala. 2.000 euro inguru batu zituzten. Elkartasun oldearekin harrিতa ere azaldu da Mamadou. “Mendaroko mutil bat etxeraino etorri zitzaidan dirua ematera”, adierazi du. Bidaiak berak sortzen dituen gastuez gain, 5.300 euro kostatu zaie haurren gorpua Senegalera eramatea. “Erdia hemen inguruan batu dugunarekin ordaindu dugu, eta beste erdia Senegalen gure ingurukuek batu dutenarekin”.

2004an iritsi zen Mamadou bera Euskal Herrira, atunontzi batean. Ondarrun egin zituen lehenengo bi urteak, paperik gabe, legez kanpoko egoeran, harik eta 2006an itsasoan lanean hasi zen arte. Bere egoera legeztatuta, Elgoibarrera etorri zen gero IMHn soldadura ikastaro bat egitera, eta hemen bizi da geroztik. “Ikaragarri ondo hartu naute Euskal Herrian”, dio. Hala ere, hasiera gogorra izan zela aitortu du. Senegalen laga zuen zeu-

“Eskerrik asko lagundu diguten denei. Estimaten diegu gugatik egin dutena”

kan dena, tartean emaztea eta bi seme-alaba.

2010ean iritsi ziren Elgoibarrera Mamadou Thiareren emazte Amy Diouf eta seme-alaba zaharrenak: Babacar eta Fatiou. Sadio, urte eta erdiko mutikoa, Elgoibarren jaio zen. Baita etxeko seigarrena ere. Azaroaren 20an jaio eta abenduaren 20an hil zen. Bat-bateko heriotza izan zen, golpe gogorra familiarentzako. Zer egin ez zekitela, Mamadouk Herri Eskolako irakasleengana jo zuen, ikastetxe hortantxe ikasten dutelako euren seme-alaba zaharrenek, Babacarrek eta Fatiouk. “Askok ez dute ulertuko, baina semearen gorpua Senegalera eraman nahi genuen, baina ez geneukan bitartekorik. Ez duzue ulertuko, beharbada, baina han daukagu familia osoa, eta hara eraman beharra geneukan. Han, aiton-amonengandik gertu dagoela jakinda, lasaiago gaude. Armadoreak hamabost eguneko baimena eman zidan semea Senegalera eramateko eta biziki eskertzen diot”, azaldu du Mamadouk. Berez, Bassoulgoak dira Thiarerretarrak (Fatic eskualdea, Senegal), baina Dakarren hilobiratu du semea Mamadouk, hantxe bizi direlako Amyren guraso eta neba-arrebak. “Hileritik gertu bizi dira, eta umea zainduta egongo da han. Ahal duten aldiro joango dira gurtzera”. Beraiek Elgoibarren bizita, semearen hilotza Senegalera eraman nahi hori askori ulergaitza egingo zaiela uste du Mamadouk, eta azalpen bat ematera behartuta sentitu da: “Gure kulturari, familia oso garrantzitsua da”. Musulmanek adinekoei dieten errespetua aitatu du behin eta berri.

Lagundu dieten guztiei eskertu nahi die. Zerrenda amaigabea du: Herri Eskolako zuzendari, irakasle eta gurasoak, Elgoibarko Udala, Caritas, gizarte-laguntzaileak, arrantzaleak, herritarrak, anaia musulmanak, ontziko patroia eta armadorea... Beldur da norbait ahaztuko ote zaion, eta “eskerrik asko herri denei; eskerrik asko bene-benetan” esanez amaitu du.

SAN JUAN BOSCO EGUNA ARGAZKITAN

San Juan Bosco eguna ospatu zuten joan zen barixakuan Me-kan, Institutuan eta IMHn. Kirol probak, jokoak, lehiaketak eta beste hainbat ekitaldi prestatu zituzten ikastetxeetan. Umore onean pasatu zuten eguna. Orri honetan batu ditugu eguneko hainbat irudi.



Maila igoerak eskatzen dituen eskakizunetara egokitzeko talde bat sortu du Concepto Egile areto futboleko taldeak

Hamahiru partidatik bat ez beste denak irabazi dituzte, eta lider dira, 34 punturekin

Aurreikuspen onenak ere gainditu dituzte Debabarrena Concepto Egile areto futbol taldeko mutilek. Ligako lehen itzulia sailkapeneko lehenengo hiru artean amaitzea jarri zuten helburutzat, baina lider dira, sekulako erakustaldia emanda: jokatu dituzten hamahiru partidetatik bat ez beste guztiak irabazi dituzte, eta bestea berdindu, eta golik gehien sartu dituen taldea dira (64). Bigarren itzuli osoa gelditzen da oraindik, baina ilusioz dira taldekideak, eta jada hasi dira Bigarren Mailara igotzeak zer suposatuko lukeen aztertzen. Mailaz igotzeak 400.000 euro inguruko aurrekontua eskatuko lukeela aurreikusi dute, eta dena lotzeko, babes talde bat sortu dute, gaur egungo zuzendaritzarekin elkarlanean jardungo duena. Klubaren beraren eskualdeko izaerari jarraituz, Elgoibar, Eibar eta Ermuko jendeak osatzen dute babes talde hori.

Sei multzo daude areto futboleko Bigarren B mailan, eta 98 taldek jokatzen dute. Concepto Egile Debabarrenako taldea lider da bere multzoan, Zierbena bigarren sailkatuarengandik sei puntura. Asko okertu beharko litzateke beraz kontua igoera fasea jokatetik kanpo gelditzeko. Izan ere, multzo bakoitzean lehenengo sailkatzen direnek eta bigarren egiten duten lau onenek jokatuko dituzte berez play off-ak, maiatzaren 18an eta 25ean. Horregatik prest egon nahi dute. "Ikaragarria da lortu duguna. Ametsa betetzen ari gara. Klubak 25 urte beteko ditu aurtan, eta polita litzateke lehen horren zaila ikusten genuena gauzatea", esan zuen prentsaurrekoan Jose Ramon Iriarte Concepto Egileko presidentea. "Areto futboleko Euskadiko lehen taldea izatea da gure helburua", gehitu zuen.

Babes taldearen egitekoak

Ricardo Garate Elgoibarko Udaleko kirol zinegotziarekin, Fher, Raul Nieto, Buitre eta Ivan Quintin jokalariekin, eta babes taldeko Asier Orbea (prentsa arduraduna) eta Hector Garridorekin (antolakuntza sailekoa) batera



Goian, tente, Debabarrena Concepto Egileko lau jokalaria: Raul Nieto, Buitre, Ivan Quintin eta Fher. Behean: Jose Ramon Iriarte presidentea, Ricardo Garate zinegotzia eta babes taldeko Hector Garrido eta Asier Orbea.

azaldu zen martitzenean Jose Ramon Iriarte Debabarrena Concepto Egileko presidentea. Berak eman zituen babes taldea osatzen zutenen eta haien egitekoen zerrendaren berri. Arautegiko kontuak lotzeko ardura, adibidez, Gorka Alkorta eta losu Ruizek izango dute. Bigarren Mailan jokatzeak eskatzen dituen eskakizunak aztertuko dituzte, bai ekonomikoak eta baita besteak ere: kantxari dagozkionak, dopinaren kontrako kontrolak egiteko gelak, segurtasuna...

Antolakuntza Sailaren ardura Hector eta David Garrido anaiek hartuko dute. Iriartek esan zuen dagoeneko jarri direla Realarekin harremanetan, bi taldeen arteko lankidetzaz sustatzeko asmoz, eta gauza bera egin nahi dutela S.D Eibar eta C.D. Elgoibar klubekin ere. Bazkide kanpaina ere egingo dute eta baita hauteskundeak ere, klubeko zuzendaritza berria aukeratzeko.

Instituzio publikoekin hartueman ona izatea ere ezinbesteko ikusten dute, eta alor horretan Edorta Silva eta Jose Ramon Iriarte bera izango dira klubeko ordezkariak. Ion Redondo Jaurilaritzako Kirol zuzendari be-

rriarekin egon berri dira eta hitzordua eskatua dute beste batzar baterako, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Elgoibarko eta Eibarko udalekin eta Gipuzkoako eta Euskadiko areto futboleko batzordeekin ere izan dituzte hartuemanak. Horrekin lotuta, alor ekonomikoak ere pisu handia hartuko du. Jose Ignacio Ortiz de Urbinak eta Jose Ramon Iriartek zainduko dituzte aurrekontuari lotutako kontu guztiak, babesleen gaia tartean.

Herrira begira ere hainbat ekintza aurreikusten dituzte egitea, areto futbola plazaratzeko. Zapatuan, 19:30ean Olazaigan jokatzea duten partidari, esaterako, Mugertza Kroseko antolatzaileak omenduko dituzte, eta apirileko azken zapatuko ferian txosna jarriko dute. Ekaineko bigarren asteburuan, karpa jarriko dute Maalan, eta etxean jokatzen dituzten partidetan herriko dantzari eta musikariak gonbidatuko dituzte, atsedendia girotzeko. Idoia Azpilikueta eta Santi Fernandez arduratuko dira ideia guzti horiek gorpuzten. Hala ere, klubetik adierazi dute lantaldeak irekiak direla eta parte hartzera deitu diete herritarrei.

Sanloko hamahiru jokalarik jokatu dute Euskadiko selekzioarekin

Sanloko ordezkariak eskubaloi mundialeko partidak ikusten izan dira

Sanloko hamahiru jokalarik jokatu dute Euskadiko selekzioarekin, Gabonetako txapelketetan. Jubenil neskek bigarren egin zuten Galizian, Madrilgo taldearen atzetik. Euskadiko kadete neskek ere Galizian jokatu zuten txapelketa. Partida guztiak irabazi zituzten, eta Elgoibarko Nora Kortaberria kapitainak altxatu zuen txapeldu-nen kopa. Infantilak Santanderren aritu ziren. Mutilek bosgarren postua lortu zuten, eta neskek, bigarrena. Hauek izan dira Euskadiko selekzioekin jokatu duten elgoibartarrak: Jubeniletan: Zuriñe Konde eta Garazi Osoro; kadeteetan: Nora Kortaberria; infantiletan: Nerea Bastida, Maialen Loiola, Nagore Rodriguez, Ana Zubiaurre, Iera Hernandez, Amaia Rubio, Alejandro Beraza, Aitor Kortazar, Eneko Barrietabeña eta Imanol Albizu.



Eskubaloi Mundiala

Sanloko ordezkariak eskubaloi mundialeko partidak ikusten ibili dira.

Goiko argazkia Madrilgo Caja Magica kantxan aterata dago. Espainiak iraba-

zi du munduko eskubaloi txapelketa, Danimarkaren kontra 35-18.

BANATZAILEAK BEHAR DITUGU

**Barixakuetan BARREN
astekaria banatzeko**

Interesatuak deitu
943 744112 (Ainhoa) telefonora edo
idatzi barren@elgoibarkoizarra.com helbidera



Iñigo Ortuostek irabazi du Idotorbe bideko depositora arteko apustua

Bost bat segundo atera dizkio Erik Polanko korrikalariari



Mendaroko butano-desafioaren antzera, beste apustu bitxi bat egin zuten martitzenean Elgoibarren. Anjel Garate eta Igor Castañares brigadako langileek eztabaida bat eduki zuten: aldapa handian korrikalariak hobeto moldatzen direla txirindulariak baino, zioen Garatek. Castañaresek, aldiz, txirindulariaren alde egin zuen. Lekua adostu zuten proba egiteko: Idotorberako bidea hasten den lekutik depositoraino, eta bakoitzak ordezkarri bat jarri zuten proba egiteko: Erik Polanko Haundiko jokalarri bergararra aukeratu zuen Garatek, eta Iñigo Ortuoste elgoibartarra Castañaresek. 18:00ak puntuan hasi zen desafioa. Polanko gogor irten zen eta hasierako metroetan Ortuosteri tartea atera bazion ere, erdi bidean aurreratu zuen txirindulariak. Inork ez zituen denborak neurtu, baina bost bat segundo atera zizkion metan Ortuostek Polankori. Datorren astean laurak joango dira afaltzera, Garateren kontura.

Maite Maiora bigarren eta Iñigo Lariz laugarren, Aragoiko mendi eski igoeran



Joan zen zapatuan jokatu zuten Aragoiko mendi eski igoera, Panticosako eski estazioan. Maite Maiora mendarorak bigarren egin zuen emakumezkoetan, eta Iñigo Lariz 4. sailkatu zen senior mutiletan. Panticosa herritik bertatik irten ziren partehartzaileak, eta basoan zehar 750 metroko igoerari aurre egin behar izan zioten. Mikel Nabarro urretxuarrak bigarren postuan amaitu zuen proba. Iñigok eta Mikelek bikotea osatuko dute datorren asteburuan izango den Altitoy proba entzutetsuan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Getxo 0 – Haundi 2 (3. maila)
 Allerru 0 – Elgoibar 3 (Neskak)
 Elgoibar 1 – Eibartarrak 4 (Erreg.)
 Orioko 2 – Elgoibar 1 (Jub.)
 Elgoibar 0 – Real Sociedad 4 (Kad. A)
 Elgoibar 0 – Pasaia 6 (Kad. B)
 Elgoibar 1 – Ordizia 1 (Ohoezko inf.)
 Aretxabaleta 1 – Elgoibar 0 (Inf. txiki)

ESKU PILOTA

Lagunak 9 – Beloki 22 (1. mailako nag.)
 Lagunak 17 – Intxurre 22 (1. mailako nag.)
 Arrasate 10 – Lagunak 22 (2. Jub.)
 Bergara 22 – Lagunak 10 (2. Kad.)
 Arrasate 22 – Lagunak 18 (3. Kad.)
 Zarautz 22 – Lagunak 25 (Pala)

SASKIBALOA

Leihoak Zast 47 – Viento Sur Elg. 58

ARETO FUTBOLA

Colo Colo 3 – Concepto Egile 6 (2B)

ESKUBALOA

Gabaz Elg. 33 – Usurbil 23 (Sen. mut.)
 Errotabari 28 – Lauko Elg. 22 (Jub. nesk.)
 Errotabari 23 – Astigarraga Elg. 22 (Kad. nesk.)
 Pulpo 22 – Bankoa Elg. 37 (Inf. mut.)
 Eibar 12 – Deca Elg. 16 (Inf. mut.)
 Murgil Elg. 25 – Aiala Zarautz 16 (Inf. nesk.)
 Aiala Zarautz 18 – Aterpe Elg. 19 (Inf. nesk.)
 Aloña Mendi 19 – Tecnifuelle Elg. 27 (Sen. nesk.)
 Alkideba Elg. 22 – Ordizia 16 (Aleb. mut.)
 Aloña Mendi 3 – Alkideba Elg. 34 (Aleb. nesk.)

AGENDA

SASKIBALOA (Kiroldegian)

Domeka, 3

12:15 Viento Sur – DKS Lurgoien

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 2

16:30 Haundi – Aurrera Vitoria (3. maila)

18:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Inf. txiki)

Domeka, 3

12:30 Elgoibar – Urola (Neskak)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 2

10:15 Deca Elg. – Pulpo (Inf. mut.)

11:30 Bankoa Elg. – Bergara (Inf. mut.)

13:00 Txarriduna Elg. – Egia (Kad. mut.)

16:00 Ikus Elg. – Egia (Kad. nesk.)

17:30 Tecnifuelle Elg. – Usurbil (Sen. nesk.)

Domeka, 3

9:45 Aterpe Elg. – Aiala E (Inf. nesk.)

ESKU PILOTA

Barixakua, 1

21:30 Lagunak – Gazteleku (Pala)

22:00 Lagunak – Usurbil (Pala)

Domeka, 3

11:30 Lagunak – Hondarribi (2. mailako kad.)

12:00 Lagunak – Intza (2. mailako jub.)

ZUHAITZ GURRUTXAGA

Bakarrizketagilea



“Realeko jokalaria izatea bezalakorik ez dago guapo sentitzeko”

Futbolari zela ezagutu genuen lehenik Zuhaitz Gurrutxaga, eta ondoren, kantuan ikusi genuen gitarra hartuta. Gaur gauean beste aurpegi bat erakutsiko digu aiastiarak, ‘Confidencias de un futbolista’ bakarrizketa saioan. Lehenengo mailan jokatu zueneko bizipe-nak batu ditu, eta gaur iluntze-an kontatuko ditu Herriko Antzokian, umore puntu batekin. 20:30ean hasiko da saioa.

‘Confidencias de un futbolista’ bakarrizketa aurkeztuko duzu. Futbolistoa zu izango zara, jakina, baina zein sekretu kontatuko dituzu?

Gauza interesgarriak ez esatearen fama daukagu futbolariok. Futbolaren inguruan sortzen diren eta inoiz kontatzen ez diren pasarteak azaltzera nator ni. Benetan diot, politikoki zuzenak diren eta futbolariok esan ohi ditugun esaldi aspergarriak ez dudala botako.

Lehen mailan jokatu zenueneko istorioekin osatu duzu bakarrizketa. Nola gogoratzen duzu etapa hura?

Lan ordu gutxi, soldata bikaina, diskoteketan sartzeko kolarik egin beharrik ez, eta ligatzeko inoiz baino aukera handiagoa! Gauza txarren bat edo beste ere bizi izan nuen, baina balantza positiboa izan zen.

Clementerekin egin zenuen debuta Realean. Zer esan dezakezu Clementeri buruz?

Zorte handia izan nuen bi urtez Clementerekin egotean. Berarekin bizitako istorioekin soilik pare bat bakarrizketarako materiala izango nuke. Herriko Antzokian berari buruz ere hitz egingo dut.

Hasselbaink zaintzen egin zenuen debuta Anoetan, eta txartel gorria ikusita kaleratu zintuzten partida hartan. Hala ere, debut laburragoak izan dituzula jakin dugu...

Edozein alorretan ere, debut ona egitea ez da erraza. Aitortu behar dut nire debut sexualean ez nintzela minutu eta erdira ere iritsi. Bakarrizketan pasarte honetaz ere arituko naiz, lehen mailako debuta eta debut sexualak zerikusi handia izan baitzuten.

Zerk ematen dizu beldur handiagoa, Anoetak ala Herriko Antzokiak?

Anoetan nerbio galantak pasatakoa naiz. Asko sufritzen nuen garai hartan. Herriko Antzokian eta bakar-bakarrik taularatzeak ere errespetu handia ematen dit, baina zinez diot, gehiago disfrutatzen dudala eszenatikian futbol zelaian baino.

Futbolari, abeslari eta orain bakarrizketalari. Vanpopelen abesti baten arabera, zure aitak oso bestelako etorkizuna zeukan zuretzat...

Belaunaldi bateko jendearentzat farandula edo espektakuloaren bizia ez dira ogibide serio-serioak. Niretzako bestelako etorkizuna zeukan irudikatuta aitak bere baitan, tornuan edo fresadoran, seguruenik, baina oraingoz, beste bide batzuk probatu nahi ditut.

Zuk esana da neskekin ligatzeko hasi zinela gitarra jotzen. Zuhaitz futbolariak ala artistak ligatzen du gehiago?

Dudarik gabe lehen mailan jokatzeko nuenean ligatzen nuen gehien. Hirugarren mailako fut-

bolaria izateak ez du emaitza onegirik ematen neskatan egiteko garaian. Eszenatikira igotzeak eman ohi du nolabaiteko morboa, baina Realeko jokalaria izatea bezalakorik ez dago guapo sentitzeko.

Aiastiarra, baserritarra, euskalduna... Gaztelera abesten hasi zinen zure neskalagunak euskaraz ez zekielako. Zergatik bakarrizketa gaztelaniaz?

Kontatzen ditudan istorioak futbol munduan gertatutakoak dira, ezagutu ditudan pertsonai askorekin izandako bizipenak. Pasarte gehienak gaztelaniaz bizi izan ditut, eta errealismo osoa eman nahi diot bakarrizketari. Momentuz, bizi izan nituen hizkuntzan kontatzea erabaki dut. Espero dut aurrerago, euskaraz beste ikuskizunen bat prestatzea. Hori da nire nahia.

Gauean ikusiko dugunaren aurrerapen bat?

Lehen mailako debuta baino bost minutu lehenago Clementek esan zizkidan hitzak, Miss Playboy neska eder batekin izan nuen debut sexuala, Rayo Vallecanon nintzela Madrilan ezagutu nituen diskoteka guztiak, Lee Chun Soo korearrekin bizi izan nituen abentura paregabeak... Eta askoz gehiago.

Etxegiña taldekoak eta Mendaroko koplariak bihar irtengo dira santa eskean, eta Elgoibarko Izarrakoak astelehenean

Elgoibarko Izarrako koplariak Elgoibarko baserri auzoak koplaturiko dituzte

Astelehenean, otsailaren 4an, da Santa Ageda bezpera, baina bihar irtengo dira kantura Mendaroko taldeak eta Elgoibarko Etxegiña taldekoak. Elgoibarren, 9:00etan batuko dira bolatokian, eta bi talde egin ostean, herri guztia pasatuko dute koplakantari. Ohi legez, Urazandiko La Union elkartearen hamarretakoa egingo dute aurrena, eta usadioak agindu legez, Errosario kaleko Ama Birjinari ere egingo diote bisita. Salbea abestuko diote han, eta kalerik kale ibili ondoren, Baltasar elkarterako bidea hartuko dute. Hantxe bazkalduko dute guztiek elkarrekin.

Mendaron ere bihar irtengo dira kantura. 8:30ean elkartuko dira Herriko Enparantzan, eta hiru talde eginda Mendaroko baserri eta auzo guztiak koplaturiko

dituzte. Nork berea egin ostean, Aizpen elkartuko dira denak, bazkaltzeko. Aurtentzen, Asier Agarre, Aitzol Urain, Gregorio Larrañaga *Mañukorta* eta Beñat Lizaso arituko dira bertsotan, eta batzen duten dirua Ameikutz musika eskolarentzako izango da.

Elgoibarko Izarrakoak, astelehenean

Tradizioak agindu bezala, Santa Ageda bezperan irtengo dira kantura Elgoibarko Izarra kultur elkarteak egindako deialdira batu direnak. 14:30ean abiatuko dira Kalegoen plazatik, eta Elgoibarko baserri auzoak koplaturiko dituzte bi taldetan banatuta. Aurrez izena emanda daudenak irtengo dira kantura, eta iluntzean, eguneko lana amaitutakoan, Aiastiako elkartearen afalduko dute.



Internet alorreko Argia Saria jaso du 'dantzan.com' atariak, 'bertsoa.com'-ekin batera



Bost ataletan, prentsa idatzian, irratian, telebistan, publizitatean eta Interneten, banatzen dira Argia sariak, eta azken horretan *dantzan.com* eta *bertsoa.com* nabarmendu zituzten. Sari horren inguruan hauxe nabarmendu zuen epaimahaiak: "Biak dira kulturaren alor zehatz bati bete-betearen eskainitako webguneak eta erakusten dute gaur egungo teknologiak erabiliz, baliabide gutxi eduki arren gauza handiak egin daitezkeela. Bai batak eta bai besteak lortu dute Internet bertsotarako eta dantzarako plaza digital bihurtzea eta kulturaren alor horien jarraitzaileei berebiziko zerbitzua ematen diete". Dantzan.com-en izenean Eire Vilak eta Oier Araolazak jaso zuten saria, eta euskal dantzazale guztiekin konpartitu zuten.

Iñaki Odriozolak irabazi du Cafe Bar Bilbaoren Teatro Laburreko Saria

Iñaki Odriozola elgoibartarraren *Azken ordua* izenburuko lanak irabazi du Bilboko Cafe Bar Bilbao tabernak antolatzen duen Teatro Laburreko Saria, euskarazko gidoirik onenaren atalean. Gaztelaniazkoen artean Juan Agirrerren lan bat nabarmendu dute.

Odriozolak 1.400 euro jaso zituen saritzat, eta bere lana Cafe Bar Bilbaoren webgunean eskegi dute (www.bilbaocafebar.com). Era berean, saritutako bi lanen irakurketa dramatizatua egin zuten Bilboko Bidebarrieta Kulturaguneko hitzaldi aretoan. Aktore ezagunek parte hartu zuten ekitaldian. Besteak beste honako hauek: Patxo Telleriak, Jokin Oregik, Ana Pikazak eta lehiaketa honen sustatzaile nagusi Mikel Martinez berak.

LANA

ESKAERA

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest, arratsaldez eta gauzez. Etxeko lanak egiteko ere prest.

☎ **636 590 016**

• Neska lanerako prest: dendari, garbitzaile, zaintzaile... Arratsaldez.

☎ **671 478 823**

• Neska lanerako prest: dendari, garbitzaile, zaintzaile... edozertarako prest.

☎ **671 225 189**

• Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **943 531 378 / 690 925 929**

• Emakumea lan bila: umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile moduan aritzeko prest.

☎ **638 884 104**

• Emakume arduratsua lan bila. Gauzez, nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean zein ospitalean. Autoa daukat.

☎ **688 802 701**

• Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko.

☎ **660 041 099**

• Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka, eta gauzez ere bai.

☎ **680 121 252**

• Gizona baserriko lanak egiteko edo ezinduek zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean.

☎ **688 812 845**

• Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko.

☎ **645 557 141**

• Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. Goizez, arratsaldez edota orduka.

☎ **660 551 781**

ESKAITZA

• Irakasle partikularra behar da, DBH3. mailako ikasle batentzat.

☎ **634 462 336**

• Sukalde laguntzailea behar da asteburuetarako. Interesatuek eraman curriculuma Gautxo jatetxera.

☎ **943 740 955**

ETXEBIZITZAK

• Senar-emazteek etxea hartuko lukete alokairuan Elgoibarren. ☎ **608 474 923**

• Etxea salgai, Juan Mugertza 1ean. 115m², 8. solairua, oso eguzkitsua. Egoera onean. 192.000 euro.

☎ **666 235 499**

• Babes ofizialeko etxea salgai, Santa Ana kaleko promozioan. Hiru logela eta bi komun. 80m², garajea eta trastelekua. Distribuzio ona. Hobekuntza batzuekin eta oso egoera onean. ☎ **650 344 428**

• Etxea alokatzen dut Errosario kalean.

☎ **639 353 331**

• Pisu hartuko nuke alokairuan.

☎ **608 474 923**

GARAJEAK / LOKALAK

• Garaje itxia alokairuan San Roke auzoan, kiroldegi parean. ☎ **943 742 931 / 660 937 529**

• Garajea salgai edo alokairuan, Jausoron eta Lekuederren.

☎ **652 727 631**

• Lokala alokatzen dut Erretxindin. 125m². Gazteek erabiltzeko aproposa.

☎ **649 446 716**

• Mendaro erdigunean lokal komertziala alokairuan. Guztiz egokitua, erakusleho handiarekin. Merke.

☎ **686 045 321 (Marta)**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

B

BARREN

BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

- Euskal Herria eta Espainia: **22€** (bazkideek **18€**)
- Europa: **32,50€** (bazkideek **26€**)
- Europatik kanpo: **44€** (bazkideek **35€**)

Harremanetarako: 943 744 112 (Ainhoa) edo barren@elgoibarkoizarra.com



• Zorionak, **Markel**, ur-tamilaren 29an 9 urte egin zenituelako. Muxu handi bat gurasoen eta arreba Maialenen partez.



• Zorionak, **Nerea**, 6 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez. Ondo pasa zure eguna.



• Zorionak, **Naroa**, asteartean 5 urte bete zenituelako. Zure familiakoen partez, muxu handi bat.



• Etxeko txikixak 2 urte potolo. Zorionak, **Egoi**, zure anaia Gari eta familiako gainerako guztien partez.



• Zorionak, **printzesa**, zure laugarren urtebetzetzean! Iritsi da eguna! Mila kilo muxu etxeko guztien partez, eta bereziki, Malenen partez.



• Zorionak, **Ian**, asteartean 2 urtetxo bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki Klara eta Telmoren partez. Ondo pasa.



• Zorionak eta muxu handi bat, **Naroa**. Familiako guztien partez, eta bereziki neba Galderren partez, ondo pasa zure egunean.



• Zorionak, **Laia**, asteartean urtetxo bat bete zenuelako. Patxo handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Gorka**, gaur zure urtebetetzea delako. Aneren, familiakoen eta lagunen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Julen**, zure hamargarren urtebetetzean. Oso ondo pasatu genuen asteazkenean. Etxekoen partez, patxo handi bat.



• Zorionak, **printzesak** Etxekoen partez, muxu handi bana.



• Zorionak, **Ane eta Eneko**, bihar 2 urte beteko dituzuelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Irenetxo**, 11 urte potolo! Askoi maite zaitugu. Iker, Bixen, Oxel eta etxekoek.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen, edo baren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

1 barixakua

Santa Ageda

15:30 Santa ageda kalejira
Ikastolako ikasle eta irakasleak kantuan joango dira, Ikastolatik Kalegoen plazaraino.

Ikusentzunezkoa

20:30 'Confidencias de un futbolista'

Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrizketa, Herriko Antzokian.

Musika

22:30 Doinu gogorren kontzertua

Tooth eta Beruna taldek kontzertua eskainiko dute Gaztetxean. Sarrera, 3 euro.

2 zapatua

Santa Ageda

8:30 Mendaron
Herriko Enparantzan batuko dira, eta santa eskea egingo dute Mendaroko kaleetan eta baserrietan.

Santa Ageda

9:00 Elgoibarko kalejira
Bolatokian batuko dira Etxegiña taldekoak eta Elgoibarko kaleetan jardungo dute kopia kantuan.

Ingeniaritza Eskola

11:00 Informazio saioa
IMHko Ingeniaritza Eskolak informazio saioa eskainiko du, eskolan bertan.

Herri Eskola

11:00 Ate irekiak
Ate irekien eguna ospatuko dute Herri Eskolan. Informazio saioak, umeentzako jolasak, bazkaria eta Egan musika taldearen kontzertua izango dira, besteak beste.

4 astelehena

Santa Ageda

14:30 Santa eskea, baserrietan
Elgoibarko Izarrako kideak Elgoibarko baserriak koplatuko dituzte, Santa Ageda bezperan.

6 eguaztena

Autokonpostajea

19:00 Informazio saioa
Etxean konposta egiteko informazio saioa eskainiko dute Debabarreneko Mankomunitateko kideek. Musika Eskolako auditorioan.

7 eguena

Hitzaldia

19:00 'Hondakinek badute irtenbidea: Zero zabor'
Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kideek hondakinen kudeaketari buruzko hitzaldia eskainiko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

ZINEA

'Las sesiones'

2, zapatua:
19:00/22:15
3, domeka:
19:00
4, astelehena:
21:30



'El alucinante mundo de norman'

3, domeka: 16:30



OKINDEGIA

3 domeka:
FOTERO

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

1 Zabaleta
2 Barrenetxea

3 Barrenetxea
4 Ibañez
5 Garitaonandia
6 Etxeberria
7 Fernandez
8 Yudego

Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego
Barrenetxea

Barrenetxea
Yudego
Garitaonandia
Etxeberria
Garitaonandia
Yudego



Otsailaren 8an
MOZORRO FESTA
ludotekan: merendola eta
mozorro lehiaketa,
17:00etan hasita.
Sariak irabazleentzat.

INAUTERIETARAKO MAKILLAJE SAIO BEREZIA

egingo dugu. Eman
izena otsailaren 5a
baino lehen.



17:00etan

ATXUTXIKARAOKEA

(12 urtera arteko haur eta gaztetxoentzako)
18:30ean Mozorro desfile eta koreografia
(16 urtetik beherakoentzat)

KALEGOEN PLAZAN

(Euria eginez gero Maalako parkean)

MAALAKO PARKEAN

16 URTETIK GORAKOENTZAT

- ◆ 23:00etan **ANIMAZIOA**
- ◆ 00:30ean **MOZORRO ETA KOREOGRAFIA LEHIAKETA**
- ◆ 01:30ean **SARI BANAKETA:**

- ⌘ Taldekako sariak: **1.saria: 275 € eta 2. saria: 175 €**
- ⌘ Banakako sariak (pertsona bat edo bi): **1. saria: 125 €**
- ⌘ Koreografia onenari: **1. saria: 125 €**

* Sariak eman gabe gera daitezke

 **ELGOIBARKO IZARRA**
KULTUR ELKARTEA



GAZTETIA
elgoibar
BIO KULTUR

ELGOIBARKO
UDALA

kooperatzen



ikas

2013-2014 AURREMATRIKULAZIOA

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Matrikulazio epea: urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra, biak barne.

Elgoibarko Herri Eskolako ate ireki eguna: otsailak 2



Elgoibarko Herri Eskola
Kalamua, 8
Tel.: 943 74 08 79
E-posta: 012777aa@hezkuntza.net



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA
BERTSITATE eta
IKERKETA SAILA



Elgoibar Arreiture BHI
San Roke, 11
Tel.: 943 748 397
E-posta: www.elgoibarbhi.net